

Nota de prensa **Jornada Diocesana a favor de Proyecto Hombre Bizkaia**

40 años caminando contigo: Este 2 de noviembre se celebra en Bizkaia la Jornada Diocesana en apoyo a Proyecto Hombre Bizkaia

Bilbao, 30 de octubre de 2025 — El próximo domingo 2 de noviembre, la Diócesis de Bilbao celebrará la **Jornada Diocesana a favor de Proyecto Hombre Bizkaia**, una cita que este año cobra especial relevancia, al **conmemorar el 40 aniversario de su apertura** y su impacto transformando miles de vidas y familias en Bizkaia.

Bajo el lema **“Caminando contigo, impulsando la vida, construyendo futuro”**, la Jornada será un homenaje a cuatro décadas de compromiso con las personas en situación de vulnerabilidad, especialmente aquellas afectadas por las adicciones. En la jornada se tendrá presente esta realidad que, aunque genera menos inquietud social que en los ochenta, sigue siendo una causa de sufrimiento importante en Bizkaia para miles de personas y sus familias. También es un momento de apoyo y reconocimiento al equipo profesional y voluntariado que han hecho posible este camino.

40 años de esperanza compartida

El **18 de noviembre de 1985**, se pone en marcha **Proyecto Hombre Bizkaia** -gestionado por la **Fundación Gizakia**-, referente en el tratamiento, prevención e inserción social de personas con adicciones. Si en un principio la heroína era la droga más presente en nuestras calles, creando una alarma social sin precedentes, a día de hoy la normalización del consumo de sustancias a edades cada vez más tempranas y los comportamientos adictivos relacionados con el juego o las redes sociales vuelven a poner esta preocupación en el centro de nuestra sociedad.

Echando la vista atrás, si el **primer año se atendieron 101 personas y 97 familiares**, Gizakia atendió sólo el año pasado, a **5150 personas** en las 4 áreas que ahora forman parte de su línea de actuación: **Atención a las Adicciones, Prevención con Adolescentes, Inserción Laboral** con colectivos con especiales dificultades para la empleabilidad y **Sensibilización** con población general.

En estos 40 años, más de **71000 personas han sido atendidas por los programas de Gizakia**. Y la Fundación ha pasado de gestionar un único programa, **Proyecto Hombre**, a 13

programas sólo en el Área de Adicciones. Un desarrollo dirigido a dar respuesta a los diferentes perfiles y realidades planteadas, que en los últimos años se ha centrado en ofrecer nuevos programas centrados en las necesidades de las **mujeres con problemáticas adictivas** y de violencia de género y en la **atención comunitaria y de reducción de riesgos y daños** con población en situación de calle.

En 2024 el Área de Adicciones atendió a 1460 personas (14% mujeres) y a 401 familiares, en su mayoría mujeres (68%), porque el cuidado sigue siendo mayoritariamente femenino.

Fundación Gizakia, promovida por la **Diócesis de Bilbao** y declarada de utilidad pública, desarrolla su labor en red con los servicios públicos sociales y sanitarios y en coordinación con otras entidades sociales, siempre desde una mirada centrada en la persona, la solidaridad y la justicia social.

Valores que construyen futuro

La entidad se sustenta en principios como la solidaridad, el protagonismo de la persona, la igualdad de oportunidades, la atención integral, la competencia profesional, la participación, la transparencia, el trabajo en red y la identidad. Estos valores han guiado su misión durante cuatro décadas, consolidando una red de apoyo que ha salvado vidas y reconstruido vínculos familiares y sociales.

Invitación abierta

La Fundación Gizakia invita a toda la ciudadanía a sumarse a esta jornada conmemorativa, **tomando conciencia de la presencia de los consumos y conductas adictivas** a nuestro alrededor. Y a **sensibilizarnos con las personas que deciden abordar sus problemas de adicciones**, no solo como acto de solidaridad, sino como una oportunidad para **reconocer el valor de cada historia de superación** y renovar el compromiso colectivo con una sociedad más justa, inclusiva y compasiva.

Para más información sobre la Jornada y formas de colaborar, se puede visitar el sitio web de la Fundación Gizakia www.gizakia.org

Datos de contacto

Erdoitza Unanue Herrero
Directora de Programas de Fundación Gizakia
Tel: **94 447 10 33**

Prentsa-oharra
Gizakia Fundazioaren aldeko
Elizbarrutiko Jardunaldia

40 urte zurekin batera: Azaroaren 2an ospatuko da Bizkaian Gizakia Fundazioaren aldeko
Elizbarrutiko Jardunaldia

Bilbo, 2025eko urriaren 30a— **Datorren igandean, azaroaren 2an**, Bilboko **Elizbarrutiak Gizakia Fundazioaren aldeko Elizbarrutiko Jardunaldia** ospatuko du. Aurtengo edizioak garrantzi berezia hartzen du, izan ere, **40 urte betetzen dira erakundea martxan jarri zenetik**, eta milaka pertsona eta familia bizkaitarren bizitzak eraldatu dituen eraginaren oroimenez egingo da.

“Zurekin batera, bizitza bultzatzen, etorkizuna eraikitzen” lelopean, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonekin, bereziki mendekotasunen eraginpean daudenekin, egindako lau hamarkadako konpromisoari omenaldi bat izango da jardunaldia. Gaur egun, mendekotasunek gizartean 80ko hamarkadan baino kezka sozial txikiagoa sortzen badute ere, Bizkaian milaka pertsona eta haien familien sufrimenduaren iturri izaten jarraitzen dute. Era berean, egun honetan profesionalen eta boluntarioen taldeari babesa eta aitortza emateko unea izango da.

40 urteko itxaropen partekatua

1985eko azaroaren 18an jarri zen martxan Gizakia Fundazioak kudeatutako **Gizakia proiektua**, mendekotasunen tratamenduan, prebentzioan eta gizarteratzean erreferente bihurtu dena. Hasieran heroina zen gure kaleetan presentzia handiena zuen droga, alarma sozial handia sortuz. Gaur egun, gero eta pertsona gazteagoek substantzien kontsumoaren inguruan egiten duten normalizazioak eta jokoarekin edo sare sozialekin lotutako jokabide adiktiboek, kezka hori berriz gizartearen erdigunean jartzen dute.

Atzera begiratuta, lehen urtean **101 pertsona eta 97 senide artatu ziren**. Iaz, Gizakiak **5.150 pertsona** artatu zituen bere jarduera-lerroa osatzen duten 4 arloetan: **Mendekotasunen Arreta, Nerabeekin Prebentzioa, Enplegagarritasun** zailtasun bereziak dituzten kolektiboekin Laneratzea eta **Herritarrekiko Sentsibilizazioa**.

40 urte hauetan, **71.000 pertsona** baino gehiago artatu dituzte Gizakiaren programek. Fundazioak programa bakar bat kudeatzetik (**Gizakia**) **Mendekotasunen** Arloan 13 programa kudeatzera igaro da. Garapen horrek profil eta errealitate desberdinei erantzuteko helburua izan du, eta azken urteetan arreta berezia jarri da **emakumeen mendekotasun arazoetan eta genero-indarkerian**, baita kaleko egoeran dauden **pertsonekin komunitate-arretan eta arrisku eta kalteen murrizketan ere**.

2024an, **Mendekotasunen Arloak 1.460 pertsona** (horietatik %14 emakumeak) eta **401 senide artatu zituen**, gehienak **emakumeak** (%68), zaintza lanak emakumeek egiten dituztelako gehien bat.

Bilboko Elizbarrutiak sustatutako eta onura publikoko izendapena duen **Gizakia Fundazioak** sarean lan egiten du gizarte eta osasun zerbitzu publikoekin eta beste erakunde sozial

batzuekin koordinatuta, betiere pertsonan, elkartasunean eta justizia sozialean oinarritutako ikuspegitik.

Etorkizuna eraikitzen duten balioak

Erakundea honako printzipioetan oinarritzen da: elkartasuna, pertsonaren protagonismoa, aukera berdintasuna, arreta integrala, gaitasun profesionala, parte-hartzea, gardentasuna, sare-lana eta identitatea. Balio horiek gidatu dute bere misioa lau hamarkadetan zehar, bizitzak salbatu eta familia eta gizarte-loturak berreskuratu dituen laguntza-sarea sendotuz.

Gonbidapen irekia

Gizakia Fundazioak herritar guztiak gonbidatzen ditu jardunaldi honetan parte hartzera, gure inguruan dauden kontsumo eta jokabide adiktiboen

presentziaz jabetzeko. Eta mendekotasun arazoei aurre egitea erabakitzen duten pertsonekin **sentsibilizatzer**a, ez bakarrik elkartasun ekintza gisa, baizik eta gainditze-historia bakoitzaren **balioa aitortzeko eta gizarte bidezkoago**, inklusiboago eta errukitsuago batekin konpromisoa berritzeko aukera gisa.

Jardunaldiari eta lankidetzarako moduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu Gizakia Fundazioaren webgunea: www.gizakia.org

Harremanetarako datuak

Erdoitza Unanue Herrero
Gizakia Fundazioaren Programen
Zuzendaria
Tel: **94 447 10 33**